

'Zoon politikon'



LAURA PENAGOS RODRÍGUEZ
ANTZEZLEA

Migrazioa? Ez, mila esker" Jose Mari Esparzaren testuak hau- tsak harrotu zituen duela hi- labete inguru. Soka luzea ekarri zuen horrek, eta nik ere soka horretatik tira egin nahiko nuke. Argudioak eman nitzake diskurtsoa arrazista dela esateko, baina ez da hori nire asmoa; arrazakeria mota asko daude leku guztietan, eta he- mengo sektore "progresistak" ez daude errealtate horretatik salbu. Esan be- zala, baina, beste zerbaitetan jarri nahi nuke arreta. Iritzi emaileon eta informa- zioa jasotzen dugunon arduraz eta be- tebeharraz sortu baitit gogoeta nagusia Esparzaren testuak.

Lengoaiak pentsamendua sortzen du, eta pentsamenduak ekintza. Alde bate- tik, hedabideetan geure usteak plazara- tzen ditugunon arduraz pentsarazten dit horrek. Agian ez dugu inolako eran- tzukizunik, segur aski kontuak eska- tzen ibiltzea ariketa kontserbadorea eta paternalista da, eta iritzia librea da, ekonomia bezala, librea. Iritzia eskla- boz betetako mundu hau bezain askea da. Iritzi-emaile profesional bihurtu gara, eta agian zilegia da, baina horren ondorioz (ere) sare sozialak eta komu- nikabideak iritzi-kazetaritzaz gainezka

Buruan ditugun usteak askotan ez dira gureak, baizik eta beldurraren eta aurreiritzien ondorio, beste batzuek guk pentsatzea nahi dutena, finean

daude, "informazioaren demokratiza- zioa" omen.

Beste alde batetik, gogoan hartu behar da iritzi jasa horren hartzaileek nola kudeatzen duten informazio anda- na hori. Esango nuke askotan ez gaudela prest behar bezalako hausnarketa sako- na egiteko. Batzuetan, diskurtso ofiziala errepikatu besterik ez dugu egiten. Bes- te batzuetan, jasotako informazioa gure

iritziarekin bat ez datorrenean, pozoia zabaltzen dugu sareetan, hausnarketari tarterik eman gabe.

Adiskideak eta etsaiak sortzen ditu- gu di-da batean, erraietatik egindako irakurketetan oinarrituta, eta mundua modu ezberdinean ikusten dutenak kon- bentzitu egin nahi ditugu, geure egia ba- karra balitz bezala.

Oso politikoak garea sinetsita, mun- dua aldatzen ari garelakoan, *panem et circenses* distrakzioaren bidea jarrai- tzen ari gara, agenda markatzen dute- nek gure kirtenkeriaz irri egiten duten bitartean.

Geure buruari galdetu beharko ge- nioke zein den gure prozesu mentala informazioa barneratzeko. Buruan di- tugun usteak askotan ez dira gureak, baizik eta beldurraren eta aurreiritzien ondorio, beste batzuek guk pentsatzea nahi dutena, finean. Aristoteles gogo- ra ekarrita, *zoon politikon* gara, "ani- malia politikoak", alegia. Hala, esango nuke "animalia politikoak" izatea bestea modu sakonean ulertzea dela, eta modu horretan mundua ulertzea. Ekintza horren bidez, nork bere kaka purgatu beharko genuke, kaka hori munduari ez botatzeko. ●



www.argia.eus/eginargiakoa

Babestu euskal
kazetaritza
independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa